



ZUZENKETAK (I)

Lehenengo ariketa
2007ko irailak 24-28

Estilo kontuak (I)

- (...) Guggenheim ikustera etorri zela Australiatik. Iritzia eskatu nion, eta neska australiar honek esan zidan turistikoegia dela.
- (...) Guggenheim ikustera etorri zela Australiatik. Museoaz zuen iritzia eskatu nion, eta turistikoegia zela erantzun zidan neska australiar honek.

Estilo kontuak (II)

- ...zuzenean dago sailkatuta hurrengo faserako
- ... zuzenean sailkatu da hurrengo faserako.
- ... zuzenean sailkatua da hurrengo faserako

Hizkera naturala (esaten dugun moduan)

- 5:30etatik
- Bost t'erdietatik
- Bost eta erdietatik
- Bostak eta erdietatik (EZ)

Kalko okerrak (...Z)

- (...) beste antzezlariek bikain osotzen baituzte beraien paperak, istorioari errealismoa emanez
- (...) beste antzezlariek bikain osotzen baituzte beraien paperak, eta istorioari errealismoa ematen diote

Kalko okerrak (...larik)

- Pelikulak bilbe sendo zein biribila dauka, ikus-entzulea hunkitzea, barre egitea eta beldur pixkat pasaraztea ere lortzen **duelarik**.
- Pelikulak bilbe sendo sein biribila dauka, **eta** ikus-entzulea hunkitzea, barre eragitea eta beldur pixkat pasaraztea lortzen du

Kalko okerrak (denborala kausalaren ordezt)

- (...) Azken hau izan zen garaile berrehun eta laurogeita hiru puntu poltsikoratu **ostean**.
- (...) Azken hau izan zen garaile berrehun eta laurogeita hiru puntu poltsikoratu **baitzuen**.
- (...) Azken hau izan zen garaile berrehun eta laurogeita hiru puntu poltsikoratzearen **ondorioz**.

Kalko okerrak (...bezala)

- (...) Erdilari edo aurrelari **bezala** ondo moldatzen da...
- (...) Erdilari edo aurrelari **gisa** ondo moldatzen da...
- (...) Erdilari edo aurrelari **moduan** ondo moldatzen da...

Testuaren aurkezpena (errazago irakurtzeko)

- 55. urteurrena
- Berrogeita hamabosgarren urteurrena
- 55garren urteurrena (??)